

## **BIZITZAREN PENTAGRAMAN JOLASEAN**

Alaine Agirre Garmendia, 16 urte

*Bermeo*

Pertsianaren zuloetatik zehar sartutako errainu goiztiarrek, mihise urreztatu batez estali dute zure gorputza. Argitasunaren gardentasunak kolpatu dizkizu begiak, eta itzartu egin zara. Loaren kilimak sentitzen dituzu oraindik, hala ere. Erdi lo, erdi itzartuta zaude. Aldi berean han eta hemen egongo bazina modura sentitzen zara; errealitatearen pentagraman ametseko ahairea zizelkatzen bazeunde legez.

Zeure ondoan, gizonaren bizkar biluztua duzu ikusten. Ez dira zentimetro eskas batzuk soilik banatzen zaituztenak. Zinez, urrun dago. Zeure ohean bai, baina zeure atmosferatik at. Hurbildu egin zatzaizkio, laztan diezaiozun. Itxurazko afektuaren iruzurrak lapurtu ditu ferekak alabaina, distantziak irabazi duelarik borroka. Alboratu zara beraz, urrundu; zeure gurak isiltasunari oparituz, bere monarkiapean, buru-makur.

Atzamar batez, leuntasunaren kilikortasunaren bilatzaile, ukitzen duzu zeure sabela, ezteki. Kilima eta fereken gozatasunak titi-buruak gogortzen diz-

kizula sentitu duzu. Zeure gorputz biluzian zehar hedatzen dira laztanak gerora, zeure grinen sugar bilakatuz. Eta, gozamenaren txotxongilo, itxi dituzu begiak, hasperen batez isiltasuna, hautsitako kristalezko mila puskatan konbertituz.

Ohean geratu zara une batez. Begiratu dituzu sabaian izpiek trazatutako irudiak; itxurarik gabeko moldeetan gatibatutako inarrak. Ahotsik gabeko morroiak; zure gisako izpi ilundu, zapalduak.

Lehenaldirako trena hartzea besterik ez zaizu geratzen. Pairatutako urteen pentsuan, aspaldi erabili ez dituzun praken poltsikoetan ezkutatutako gogorapenak askatuz, ahanzturatik erreskatatuz, murgildu zara oroimenean. Gogora ekarri dituzu nostalgiaz gaztaroko ortzadar sutsuak, malenkoniaz amodio galduak. Akordatu zara irriez eta mal-koez, egunsentiez eta iluntzeez, iraultzez. Eta horien amaiaren errudun diren eratzuna eta arropa zuria otu zaizkizu, azkenean. Oroitzapenen itsasoan uger, tristuraren nota grabeen doinuan esklabu, itotzen bazeunde moduan sentitu zara.

Zeure albora begiratu duzu, eta bera ikusi. Indiferentziak eta saminak busti dizkizute begiak.

Galduta sentitzen zara, zure izaren ozeano amai-gabeen. Ezerezaren zeruan bazeunde legez sumatzen duzu zeure burua, non zauden ez dakizularik, ez han ez hemen. Inon ere ez. Arimarik gabeko itzal ilun baten erara sentitzen zara, bizitzaren espaloian pasieran, ibiltzen. Noraezean. Haizeak daraman sikatutako hosto hil bat bazina. Zure eskuetatik at dagoen indar absurdu batek zarama-

tza zinez, zure lepo zuri eta ahuletik oratutako uha-  
letik tiraka. Eta, bizitzaren usainak dastatzeko itsu-  
turik, denboraren joana ikusteko gor, biziak ihes  
egiten dizu, hasperen bakoitzarekin, negar-tanta  
bakoitzarekin. Argazkirik bako albumetako orri  
zuri bakoitzarekin.

Erlojuaren orratzen existentzian harrapaturik,  
tik-tak, bizi irauten datzan zentzua soinean, tik-tak.

Eta zeure bizitza amildegirantz daramazunaren  
kontzientzia zikina adimenean.

Ezin duzu gehiago. Ihes egin behar duzu.

Ohetik altxa, eta kuleroak topa dituzu. Kamiseta  
eta prakak jantzi, kotxeko giltzak hartu, eta irten  
zara kalera; oinutsik, ia bilutzik. Nora zoazen ape-  
nas jakin gabe.

Kotxean sartu eta martxan jarri duzu motorea.  
Abiatu zaren heinean, bolantea bortizki laztandu  
duzu, eskuen dardara ezkutatu nahian. Oin bilu-  
ziaz zapaldu duzu azeleragailua, eta eskaini zatzaiz-  
kio errepideari, hark nora eroango zaituen jakin  
ere egin barik. Biratu duzu lehenengo ezkerre-  
ra, gero eskuinera, ondoren eskuinera berriro ere,  
jarraitu aurrera eta ezkerre-ostean, haizearen  
xuxurlen jarraitzaile.

Bidean zoaz. Artega zaude, asalaturik.  
Musikaren tonu sarkorrek bihotza baretuko dizu-  
telakoan edo, piztu duzu irratia. Biolineko kordei  
laztan egiten dien arkuaren ferekak, ferekak izan-  
go lirateke, pentsatu duzu, ahalik eta igurzketek  
sortutako soinuek ez balute zeure errealitatearen  
notak zapalduko. Eta, horrela, bidean zoaz,

Tchaikovsky-ren biolinerako kontzertuko *Allegro Moderato*-aren re mayor-eko nota bortitzek egunsentiko eguzki izpi lokartuak minez janzten dituztelarik, zeure bihotzeko saminaren eramaile.

Biolinen korden marruskaduraren zioa, eskala baten eskaileren igoera zein *crescendo* erraldoi baten hazkunde indartsuaren erara hazten joan den heinean, eta biolinen azken nota sendoek zeure izatearen funtsa bortxatu baino lehen, zakar, ia krudel, zapaldu du zure oin biluziak freno. Horrenbestez, errepidearen morroi, eraman zaitu honek nonbaitera. Eskuak bolantetik apartatu, eta amatatu duzu irratia, arnasa sakon hartzea ahalbideratuz. Motorea itzali duzu. Eta kotxetik irten zara, astiro.

Bizirik, adoretu, kementsu, itsasoaren erotasuna ikusi duzu zeure aurrean, amorraturik. Bere murmuraren deiadarra aditu duzu, eta hurbildu zatzaizkio, pausoz-pauso. Sentitu dituzu harearen zirriak zeure oin biluzietan, haizea zure ilea dantzarazten olgutzen den neurrian. Heldu zara itsasertzera, sentitu duzu uraren hoztasuna. Praxak bildu dituzu, portxiakaso, urak busti ez zaitzan. Asagotik etorritako olatuak, jada indarrrik gabe, zeu eroan nahian, apurtzen dira zure izterren kontra.

Hartu duzu arnasa sakon, eta sumatu duzu kresalaren usaia zeure birikietan garbi, sano, sendo.

Olatu bidaiari baten etorrera gupida gabeak busti nahi izan zaitu, eta uraren kolpea ekiditeko salto egin baduzu ere, olatua irabazle, zu blai egin-

da uztea lortu du. Algara batek ihes egin dizu, eta berarekin batera, zeure barnealdea iluntzen duen argiaren zatitxo batek.

Uretatik irten eta harean eseri zara. Praken poltsikotik tabako paketea eskuratu, eta zigarro bat hartu duzu. Zeure ezpainen artean sartu, eta piztu egin duzu. Zupada luze bat eman diozu, haren pozoiz hiltzailea zeure gorputzaz jabetzen dela sumatuz. Ostean, zeure bizitzaren pusketa batekin batera kanporatu duzu ahotik kea, honen jira-bira eta birundak soarekin jarraituz.

Zeruan, uger, itsas-txori bat ikusi duzu, hegan. Haren hegaldiari begira gelditu zara, airean hartzten dituen bihurtueneen biribiltasunari so eginez. Eta itsas-txoriak airean bidegurutzak aurkitzen badituzte pentsatu duzu, zein bide aukeratzeko gogoeta egiten badute. Errotondarik ote zeruan? Eta stop-ik? Irri egin diozu zeure gogoeta inozoari.

Galdu duzu begirada itsasoaren bukaerarik ezean, zeruarekin amodioa egiten duen amaigabetasunean. Eta desiratu duzu bertan murgiltzea, urperatzea, urarekin bat egitea. Olatuei bekaizti begiratu deizu. Haiek bezala dantza egin gura duzu, itsasoan zehar, askatasun kresaltzuaren existentzian uger egin. Olatu suharra izan nahi duzu, indartsu eta asaldaria, itsasoaren jabe, munduaren nagusi izan nahi duena, harrien kontra borrokatzen duena. Olatu hauskorra zara alabaina, itsasertzera heldu eta desegiten dena.

Lehen ez, ordea. Behinola, olaturik balienteena zinen, ozeanoaren handierarekin ikaratzen ez

diren horiek bezalakoa. Maite zenuen borroka, desio iraultza. Zinez, enamoratuta zeunden; bizitzaz, eta denboraz. Aske zinen, zeruko bidegurutzearen aurrean, zein bide hartuko gogoeta egiten duen kaioa bezain libre. Zigarroari ordez, bizitzari egiten zenion zupada, honen kearen pozoi eta sendagai oro atxikiz. Maite zenuen bizitza, egiazki. Sentitzen zenituen honen usai eta koloreak, galtzen zinen bere melodiaren izaretan. Zeu zinen olatu, itsaso. Zeu zinen zu. Zu zeu zinen.

Bizitza aukeratzea da, esan zizun lagun batek behin. Eta, aukeratzea, galtzea. Bizi izan zinen, eta aukeratu zenuen. Ezkontza apaina aukeratu zenuen, soineko zuria, larrosa gorriak. Mahaietako mantelen kolore bainila eta zeure gizona hautatu zenituen. Bizitza eroso aukeratu zenuen, urrezko kaiola.

Galdu zenituen poesia eta musika, aldiz. Esan zenien agur amodiozko gutunei, lerro arteko mezuei, ametsei. Esan zenien adio hegoei, askatasunari; zeure izaerari.

Aukeratu zenuen maite ez zenuena: galdu zenuen maite zenuena.

Zeure atzamarren artean zigarroa nola kontsumitzen den adituz, jantzi dituzu behin ere aspaldian armairuan ezkutatuta zeuden bakeroak: eta poltsikoko gogorapenak banan-banan dastatuz, erreparatu diezu haizeari eroaten utzitako momentuei. Jabetu zara zeure hustasunaz, konturatu denboraren joanaz.

Ezintasunak ostu dizu malko bat, eta beste bat. Eta egin diozu negar itsasoari, maite duzun horri.

Galduta antzematen duzu zeure burua. Ez daki-  
zu non zauden. Beharbada, ez zaude inon. Irreal-  
tasunaren isla den itzal ilun bat besterik ez zara  
agian, hara eta hona, haizearen korronteen eskue-  
tan dagoen geriza. Galbiderantz doan arima zigor-  
tuaren antzo, egunez- egun, amildegitik gertuago  
hauteman dezakezu zeure burua.

Negar egin diozu itsasoari. Eta hasperen egin  
duzu, zeure baitako nahigabea husteko nahian.  
Ezer ez, alabaina.

Itsasoari eskaini diozu zeure begirada. Eta,  
ahantzuratik kantu atzendu bat berreskuratuz, hasi  
zara abesten. Hasieran lotsaren notak abestu ditu-  
zu, baina zeure ahotsa aspaldiko partez entzutera-  
koan sentitu zara nolabait anparatuta, doinu eroe-  
tan babesturik. Abestu diozu beraz itsasoari, maite  
duzun horri, irri, negar, eta hasperen egiten dio-  
zun horri. Zeure begirada eta kasua, arreta eta  
kontua.

*Bizitza aukeratzea da, eta aukeratzea galtzea.*

Zeure baitan zerbait itzartu da supituki, musika-  
ren erruz beharbada. Kreslaren gogoz, agian.  
Baina zeozerk aldarri egin dizu zeure barnealdetik,  
sendo, irmo, asaldari. Iraultzaren oihua akaso?  
Zeure ahotsa entzuteko ordua heldu zaizu, zeure  
izaera biluzteko unea. Begiak itxi, eta zure barneak  
zarataka diotsun hori entzun, eta egiteko ordua  
duzu. Zeure bihotz herdoilduak diotsunari hega-  
lak emateko unea iritsi zaizu.

Bada, zeure izanaren motiboak ukan nahian,  
prakak eta kamiseta erantsi dituzu, kuleroak jaurti.

Haizeak laztandu dizu zeure gorputz biluzia, ferekatu, besarkatu; bere maitale bilakatu zaituen heinean. Eta apurka-apurka, uraren amorante bilakatu, itsasoan murgildu zara. Orduan bai, ezabatu duzu malenkonia eta nahigabe guztia, eta tristura, eta samina. Bete duzu zeure barneko hutsune isila itsasoko ur gaziaz, biziaz. Eta bihurtu zara zeu ere olatu, itsasoan murgilduz, dantzatuz. Eta zu, olatu hori, ortziaren limiterik ezeraino ailegatu zarela amestu duzu, errealitatearen mugen aurka.

Aldiz orain bai, orain badakizu nor zaren, non zauden. Bizitza ekuazio baten mailan aldendu zenezake, aldagai ezezagunen bilaketa soil eta antzu batean, bere erro anitzak bidegurutze baten izaera diferentek direlarik, hara edo hona, gertuago ala asago, eroan zaitzaketen bidezidorrak. Bilaketa aldrebes horren soluzioak inork aurkitu ez badituen arren,  $x$ -en edota  $y$ -ren balio infinituei gerturatzen zaizkien emaitz “posible”-ak asko dira zinez. Eta zuk, zeure bizitzan, zeure bilaketan topatutako soluzio anitzetatik bat aukeratu zenuen, aukeratu duzu, aukeratuko duzu, edo aukeratuko zenuke. Eta hautatuko zenuen, duzu, zenuke horietariko bidexka bat; asago, itsasoak zeruan taxutzen duen bukaera baino harantzago eramango zaituen xenda bat. Biolinaren korda mutuak zeuk igurtziko dituzun unera eramango zaituen emaitza hautatuko duzu: minus bi, plus lau heren, erro hamaika...

Zeure bilaketa bizitzeko ahotsa emango dizun emaitza aukeratuko duzu.



Badakizu zeure bizitza zeure aukera dela, izan ere. Badakizu. Eta badakizu zein bidetan eman behar duzun pausoa: esango diozu agur zeure ohean dagoenari, esango diozu agur dotoreziari. Aukeratzea, egiatan, galtzea da. Baina irabaztea ere, eta badakizu, orain bederen. Poesia, musika, artea, denbora, amodioa, iraultza, zerua, zentzua... zeure izaera, zeure bizitza irabaziko duzu. Erlojuen tik-tak-aren lapur izango zara, denboraren xixkalarri. Bakero zaharrak soinean eramango dituzu, poltsikoak oroitzapenez gainezka. Eta momentu bakoitzari abestuko diozu, dantzatuko, idatziko. Unea biziko duzu. Badakizu. Ez dakizu badakizula jada, baina badakizu ez dakizun hori jakingo duzula egunen baten, beharbada gaur, agian bihar, akaso urte bete barru. Baina jakingo duzu, ziurki, eta orduan bai, orduan sentituko zara bizitzaren pentagraman, jolasean.